

Ordizian, 2017ko ekainaren 05<sup>ean</sup>, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** José Miguel Santamaría Ezeiza

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Adur Ezenarro (Jon Ander Caballeroren ordez)	EH BILDU
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Jose Ignacio Iturrioz Gotor, EAJ/PNV

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta

**EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.-2017ko maiatzaren 22ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
  - 6.000 €tik beherako fakturak.
  - AD Udal Eraikinen garbiketa zerbitzuaren pleguei buruz
  - Udaltzaingoaren funtzionamenduari buruzko instrukzioa
  - HAPB, Arana 6 H.I.Aren A 20.6.1 partzela
  - San Bartolomeren berrantolaketa
- 4.- Galde-eskeak.

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 15:15**

**AMAIERA ORDUA: 16:15**



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

**1.- 2017ko maiatzaren 22ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**“Ohiko deialdian egin zen 2017ko maiatzaren 22ko aktaren zirriborroa onartzea”.**

***Aho batez onartu da akta.***



**2. – HAPB (Hiri Antolamendurako Plan Berezia) Arana 6 HIEren A 20.6.1 partzela, hasierako onarpena**

Idazkari andreak adierazi du puntu hau eguneko gaien zerrendan “Txostenak eta hainbat eskari” puntuan sartu arren, Alkate Dekretu bidez onartua izateko, Gobernu Batzordearen aldeko irizpena jaso behar duela.

Arkitekto jaunak, puntu honetan bertan, labur azaldu du zertan datzan HAPBk.

***Aho batez eman zaio aldeko irizpena.***

**3.- 6.000 €tik gorako fakturak**

23 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 59.304,34 €

***Fakturei oniritzia eman zaie.***

**3.- Txostenak eta hainbat eskari.**

.- San Bartolomeren berrantolaketa: Udal arkitektoa bertaratu da puntu honetan eta labur eta planoekin azaldu du Eroski inguruan, San Bartolomen, proposatzen den plangintza.

Alkate jaunak adierazi du Foru Aldundiak bere kezka jakinarazi diola diru-laguntza hori galtzeari buruz, aurrekontuan partidarik ez izatearren.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

22 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 66.151,59 €

**Fakturei oniritzia eman zaie.**

.- Alkate Dekretua Udal Eraikinen garbiketa zerbitzuaren pleguen onarpenari buruz.

Kontu eman da, Gobernu Batzordea jakinaren gainean da. Sukia andreak eta Ezenarro eta Dubreuil jaunek pleguen kopia bidaltzea eskatu dute.

.- Udaltzaingoaren funtzionamenduari buruzko instrukzioa

**UDALTZAINGOAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO 1/2017 ZENBAKIDUN INSTRUKZIOA FITXATZEA**

- 1) Udaltzainek zerbitzua ondorengo ordu hauetatik aurrera emango dute:
  - a) Astelehenetik ostiralera:
    - 06,30 goizeko txandan
    - 14,00 arratsaldeko txandan
  - b) Larunbat, igande eta jaiegunetan: 09,00 txanda bakarrear
  
- 2) Zerbitzua ondorengo ordu hauetan amaituko da:
  - a) Astelehenetik ostiralera:
    - 14,00 goizeko txandan
    - 21,30 arratsaldeko txandan
  - b) Larunbat, igande eta jaiegunetan: 21,00 txanda bakarrear

Herriko jaietan eta bestelako ekitaldietan izango den ordutegia urtero finkatuko du Udalak.

Zerbitzu ordutegian, hau da, zerbitzuari hasiera eta amaiera (goizeko, arratsaldeko txandetan eta txanda bakarrear) emateko finkatu den ordutegian arreta telefonoa deia jasotzeko moduan egongo da.

Ordutegi horretan jasotzen den edozein deiri erantzun egin behar zaio.

- 3) Kontuan izanik udaltzainen aldagelak ez daudela Udaltzaingoaren bulego edo egoitza nagusian, udaltzainek 10 minutuan egon beharko dute uniforme jantzita eta aldageletatik kanpo. Zerbitzuaren arduradunak esan beharko du zeintzuk diren bulegora joan behar duten udaltzainak eta zeintzuk diren bestelako lanak egingo dituzten udaltzainak.
- 4) Era berean, zerbitzualdiaren amaieran, udaltzainen ibilgailua erabiltzeko moduan egongo da, hau da, kalean 21,15ak arte astelehenetik ostiralera eta 20,45ak arte larunbat, igande eta jaiegunetan eta ezin izango da Udaltzaingoaren biltegian utzi zehaztutako ordua baino lehen.
- 5) Udaltzainek zerbitzu ordutegian deiren bat jasotzen badute zerbitzua emateko edo punturen batera joateko, deiri erantzun egin beharko diote. Deiri ez erantzuteko arrazoi bakarria lehentasunezko beste zerbitzu bat ematen aritzea izango da.
- 6) Larunbat, igande eta jai-egunetan, txanda bakarria dagoenean, udaltzainek ezin izango dute udal bulegoetatik atera bazkatzera. Horretarako Udal ikuskaritza bulegoan bertan dagoen sukaldea erabiliko dute.

Udaltzaingoren buru Aitor Escalante bertaratu da puntu honetan. Instrukzioari buruzko informazioa eman da eta berau udaltzain bakoitzari jakinaraziko zaio idatziz.

.- Alkate jaunak aurreko astean Ordiziako Osakidetzako ordezkariekin espazio falta dela eta izandako bileraren berri eman du.

.....

#### **4.- Galde-eskeak.**

- Sukia andreak Trevijano txabola inguruan azaldu diren txakurrei buruz galdetu du, 2 hil dira eta gainerakoak egoera oso txarrean zeuden.

CAFekin hitz egitea proposatzen du eta txabola botatzeko baimena eskatu.

Bestalde, txabolaren jabea aurkitzen saiatuko da.

Sukia andreak, berak gaia Ertzaintzaren aurrean salatuko lukeela esan du eta bere burua salatzaile partikulartzat aurkeztu.

.....

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.